VITORIA GASTEIZ
green capital

# vitoria-gasteiz
# LIBURU AZOKA

**FLORIDA** PARKEA

urriak **8 · 9 · 10 · 11 · 12**

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Arabako hiriburuak Liburu Azoka berreskuratuko du urriaren 8tik 12ra. Bost egunetan, etxolek, sinadurek eta publiko guztientzako jarduerek Florida Parkea hiriko irakurzaleen, egileen eta liburu-denden topagune bihurtuko dute.

Parte hartzen duten liburu-denda guztiek % 10eko deskontua eskainiko dute, denda fisikoaren prezioaren gainean.

Azokaren ordutegia honako hau izango da:

**Osteguna 8:** 18:00-21:00

**Ostirala 9, larunbata 10 eta igandea 11:**
11:00-14:00 y 17:00-21:00

**Astelehena 12:** 11:00-14:00

Zure zain gaude!

## LIBURU-DENDA PARTE-HARTZAILEAK

anegon

Astrolibros

arleKin
Libros
Papelería
Regalos
Fotocopias
Prensa
Revistas

elkar

EVA FOREST
libu
ruto
pia

OMEGA
VITORIA

SAGA
LIBURUDENDA

ZULOA
IRUDIA
CÓMICS · LIBROS
KOMIKIAK · LIBURUAK

18:00-18:30

## INAUGURAZIO INSTITUZIONALA ETA INAUGURAZIO-EMANALDIA

## Karmele Jaiorekin eta Larrua Proiektuarekin

Gasteizko Liburu Azokak ateak irekiko ditu, Karmele Jaio idazlearen eta Larrua Proiektua konpainiaren eskutik, literatura eta dantza garaikidea uztartuko dituen inaugurazio-ekitaldi oso berezi batekin. Aurkezpenaren ondoren, egileak aleak sinatuko ditu.

> Ekitaldia eta sinadura stand nagusian (Kioskoaren ondoan) eta, 19:00etatik aurrera, ELKARen etxolan

> Publikoa: heldua > Euskara

---

19:15-20:15

## HITZALDIA ETA MAHAI-INGURUA ETA SINADURA Samuel Vernalekin

Samuel Vernal idazle gasteiztarrak "Del paisaje al crimen: Álava como territorio de novela negra" hitzaldia eskainiko du, eta gure inguruan girotutako thriller baten dokumentazio- eta sorkuntza-prozesuaren sekretuak azalduko ditu. Solasaldiaren ondoren, idazleak bere eleberriak sinatuko ditu.

> Antolatzailea: Editorial Uzanza

> Hitzaldia eta sinadura stand nagusian (Kioskoaren ondoan), eta, 20:00etatik aurrera, egilea etxoletan izango da

> Publikoa: heldua > Gaztelania

17:15-18:15

## IPUIN KONTALARIA: HITZAK DANTZAN Sorlaseanekin

Zarataz inguratuta bizi gara, autoak, fabrikak, sirenak eta klaxona entzuten dira nonahi, baina txoko lasai eta berezi bat dago hiriaren erdian. Han, ipuinek dantza egiten dute, entzunak izateko zain. Ssssst! Bidaia hastera doa, bazatoz?

> Stand nagusian (Kioskoaren ondoan)

> Publikoa: 4-8 urte > Euskara > Izena eman behar da*

---

18:30-19:30

## AURKEZPENA ETA SINADURA Ibon Abadekin

Ibon Abad idazleak "Trilogía de la cara oculta de las capitales vascas" aurkeztuko du, fantasiazko saga liluragarria, gure eguneroko ingurunean ezkutaturik dauden mundu ezinezkoetara atariak aurkituko dituena. Aurkezpena amaitzean, egileak bere liburuak sinatuko ditu.

> Antolatzailea: Editorial Uzanza

> Aurkezpena eta sinadura stand nagusian (Kioskoaren ondoan), eta, 19:30etik aurrera, egilea etxoletan izango da.

> Publikoa: heldua > Gaztelania

---

19:45-20:45

## AURKEZPENA ETA SINADURA Katixa Agirrerekin

Katixa Agirre idazle eta irakalse gasteiztarrak, euskal literatura garaikidearen funtsezko ahotsetako batek Naiara López de Munain kazetariarekin hitz egingo du eta "Barne Zerbitzuak" bere lan berria aurkeztuko du. Bukaeran aleak sinatuko ditu.

> Sinadura stand nagusian (Kioskoaren ondoan) eta, 20:45etik aurrera, ELKARen etxolan

> Publikoa: heldua > Euskara

11:00-12:00

## TXOTXONGILO-TAILERRA ETA SINADURA Julio Santos eta Patricia Pérezekin

Juliok eta Patriciak paperezko txotxongiloen tailer dibertigarri bat zuzenduko dute Sara Li, Txano eta Oskar pertsonaiekin. Amaitzean, euren liburuak eskainiko dituzte.

> Tailerra eta sinadurak stand nagusian (Kioskoaren ondoan) eta, 12:00etatik aurrera, ASTROLIBROSen etxolan

> Publikoa: 7-11 urte > Gaztelania > Izena eman behar da*

12:15-14:00

## ELKARRIZKETA ETA SINADURA Carmen Molarekin

Carmen Mola ezizenez ezaguna egin zen hirukote honek elkarrizketa ireki batean parte hartuko du, Maite Esparzak gidatuta, "Los huérfanos" bere azken eleberriaren xehetasun guztiak azaltzeko. Topaketa amaitzean, idazleek bertaratutakoei harrera egingo diete eta euren lanen aleak sinatuko dituzte.

> Elkarrizketa eta sinadurak stand nagusian (Kioskoaren ondoan)

> Publikoa: heldua > Gaztelania

13:00-14:00

## LIBURUAK MUSIKAREN ERRITMORA

DJ PØNek literaturaren eta musikaren arteko topagune bihurtuko du espazioa. Gozatu relax guneaz zure erosketa literarioak gainbegiratuz.

> Kiosko gunea

17:00-18:00

## IRAKURKETA ERRAZA Carmen Bravorekin

Topaketa bat Carmen Bravo egilearekin, "Resineras" obraren irakurketa partekatuaren inguruan. Saioak irakurketa errazeko klub baten dinamikari jarraituko dio, publiko guztiarentzako literatura irisgarri, parte-hartzaile eta inklusiboa sustatuz.

> Antolatzailea: Krelia: Creadores literarios de Álava

> Topaketa eta sinadurak stand nagusian (Kioskoaren ondoan)

> Publikoa: heldua > Gaztelania > Izena eman behar da*

18:30-20:00

## ELKARRIZKETA ETA SINADURA Andrea Longarelarekin

Andrea Longarela narratiba erromantikoko idazle nazional ospetsua Maite Esparza idazle eta komunikatzailearekin mintzatuko da, eta bere ibilbidea errepasatuko du, baita arrakasta handia izan duten hainbat izenburu ere, hala nola "Te espero en el fin del mundo", "El faro de los amores dormidos" edo "Todas las historias llevan tu nombre". Ondoren, idazleak aleak eskaini eta sinatuko dizkio bere publikoari.

> Elkarrizketa eta sinadurak stand nagusian (Kioskoaren ondoan)

> Publikoa: +14 urte > Gaztelania

11:00-12:00

## MARRAZKETA MAGIKOA ZUZENEAN Eider Eibarrekin

Eider Eibar ilustratzaile ezagunak kolorez beteriko saioa eskainiko du Matiren unibertsoaren eta bere lan ilustratuen inguruan. Haurrek marrazketa magikoaren erakusketa bat izango dute zuzenean, eta, jarduera amaitzean, egileak bere liburuak eskaini eta sinatuko dizkie bertaratzen direnei.

> Jarduera eta sinadurak stand nagusian (Kioskoaren ondoan) eta, 12:30etik aurrera, ELKARen etxolan

> Publikoa: 5-8 urte > Euskara > Izena eman behar da*

---

12:15-13:15

## LIBURU-SINADURA Ibon Martínekin

Ibon Martín euskal idazleak, "Los crímenes del faro" liburuarekin thrillerraren maisu bihurtuak eta "Oninen abenturak", "Siraren abenturak" eta haurrentzako beste saga batzuen egileak, liburuak sinatuko dizkio adin guztietako jendeari.

> Sinadurak stand nagusian (Kioskoaren ondoan) eta, 13:15etik aurrera, ASTROLIBROSen etxolan

> Publikoa: helduak / haurrak

---

18:30-20:00

## SOLASALDIA ETA SINADURA Jon Azkueta eta Paula Gallegorekin



Jon Azkueta eta Paula Gallego egileek euren ibilbideez hitz egingo dute eta "Un deseo por Navidad" liburu kolektiboa aurkeztuko dute. Moderatzaile lanetan Jeidi @readingwithsirens arituko da, eta, hitzaldiaren ondoren, gazteen gaur egungo generoa aztertuko dute.

> Solasaldia eta sinadura stand nagusian (Kioskoaren ondoan) eta, 20:00etatik aurrera, ASTROLIBROSen etxolan

> Publikoa: +16 > Gaztelania

---

20:15-21:00

## ZAZPI POETA ETA XISTERA BAT Kreliarekin

Adolfo Vargas Blanco, Angela Mallén, Carmen Vicente, Iván Rojas, Loli G. Garcia, Rafael Moriel eta Roberto Pérez de Arenaza poetek Krelia - Creadores literarios de Álava elkarteak azoka honetarako bereziki sortutako poesia-errezitaldia egingo dute. Publikoaren parte-hartzearekin eta zoriarekin, poetak beren bertsoak eta olerkiak aletzen joango dira, unibertso magiko bat sortzeko.

> Antolatzailea: Krelia: Creadores literarios de Álava

> Errezitaldia eta sinadurak stand nagusian (Kioskoaren ondoan)

> Publikoa: helduak > Euskara eta gaztelania

11:00-12:00

## SOLASALDIA: GAZTEEN HITZA

### Estibaliz de la Peña Ugarte, Argi Moreira Gonzalez eta Bibi Loughty

Arabako hiru idazle gaztek euren esperientziak, kezkak eta dinamikak partekatuko dituzte publikoarekin, sormen literarioaren prozesuan. Topaketak azaleratzen ari den idazketaren eta euskarazko ahots berrien inguruko elkarrizketa ireki eta informala sustatuko du.

> Antolatzailea: Editorial Nimbo

> Solasaldia eta sinadurak stand nagusian (Kioskoaren ondoan)

**> Publikoa: +16 urte > Euskara**

---

12:15-13:30

## ELKARRIZKETA ETA SINDURA Mikel Santiagorekin

Mikel Santiago thriller-egile ospetsuak elkarrizketa ireki batean parte hartuko du, Josune Velez de Mendizabalek dinamizatuko duena. Bere ibilbidea, intrigazko arrakasta handiak eta "La chica del lago" eleberriaren gakoak errepasatuko ditu. Hitzaldia amaitzean, idazleak bere lanen aleak sinatuko ditu.

> Elkarrizketa eta sinadurak stand nagusian (Kioskoaren ondoan)

**> Publikoa: helduak > Gaztelania**

> Jarduerak zeinu-hizkuntzako interpretazio-zerbitzua izango du. Eszenatokiaren/interpretearen aurrean lehentasunezko gune bat jarriko da ikuspen ona bermatzeko.

## ETENGABEKO JARDUERAK AZOKAN

### GYNKANA LITERARIA

Familientzako ibilbide dibertigarria, azokako liburu-dendak jolasaren bidez ezagutzeko. Aurkitu pistak, ebatzi enigmak eta, amaitzean, liburu-sorten zozketan parte hartu ahal izango duzu.

Iraupena: 30/45 minutu, gutxi gorabehera.

Jaso ezazu zure parte hartzeko orria kioskoaren ondoko informazio-gunean.

### IRAKURKETA GUNE IREKIA

Udal Liburutegien Sarearekin lankidetzan, kiosko inguruan.

* Izen-emateak informazio gunean egingo dira, urriaren 8tik aurrera edo jardueraren egunean aforoa bete arte.
* Lekua gordeko da dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat, lehentasunezko kokalekuan, jarduera hasi baino ordu erdi lehenago arte.